

bentaren ingurutik eskapatu zuban. . . . ¿Gaiztoa gandikan zer liteke espero?	} okerbide geiago ikustea gero: charraren lagunkidan ez artu lanikan, batak obe du jardun berak bakarrikan.
---	--

KIRKIRRA, BARAKULLOA¹ ETA BIRIGARROA

Kirkirra belardiyán anka bat autsita, zegoala ezin joanik antsiyaz, etzinta, eta gertaturikán barakulloa an, jiba gañean zuben echera eraman; eta bildurik ere zer jana ugari, alegiña lagundu zion eriyari. Beste aldi batean barakullo bera, zan denboran pareta zulotik atera; birigarroak zuben sasistik ikusi, eta achitu nayan zan denboran asi; kirkir lengoa, aruntz	} egonik begira, esan zuben,—gabirau zar bat agerida, zeña daguen begira emen ingurura; eta birigarroak entzuteaz ura, utzirik barakullo achitu zubena, larri joan zan zubela biotzean pena. . . . Onek erakusten du zer egiñ iñori egiñ ura zaiola jaikiko berari; on egiñak ona du bereganatzen, lenazko jarraierak eztira aztutzen.
--	---

RAMON ARTOLA.

(1) Caracol.